Osakidetza

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

OSAKIDETZAKO JARDUERAREN BALANTZEA
2018. URTEKO LEHENENGO SEIHILEKOA

Kirofanotik kanpo egiten diren konplexutasun handiko prozedura kopuruak bilakaera positiboa izan du

Osakidetza hasi da, dagoeneko, itxarote-zerrendak murrizteko neurriak aplikatzen, 22.600.000 euroko inbertsioaren ondorioz

- ✓ **Programatutako kirurgiako jarduera** % 1,42 handitu da seihileko honetan. Horrek egiten du Kirurgiko Itxaron-zerrenda ia **egonkor mantentzea paziente-kopuruari eta batez besteko atzerapenari dagokienez,** nahiz eta eskariak handitzen jarraitzen duen, eboluzio demografikoaren eta teknologiaren hobekuntzaren ondorioz.

- ✓ Itxaron-zerrendak hobetzeko Planak, hedatzen jarraitzen duenak, **10 ekintza-lerroa ezartzen ditu, guztira 18 proiektuekin,** kirurgia-prozesuaren kudeaketa hobetzera zuzenduta, 2018ko eta 2019ko ekitaldietarako.

- ✓ **Geroz eta gehiagotan egoten dira Konplexutasun Handiko Prozedurak operazio-gelatik kanpo Kardiologiaren, Erradiologia Interbentzionistaren eta Baskularraren, Minan eta Oftalmologiaren esparruetan.**

- ✓ **Lehen Mailako Arretaren esparruan,** esan dezakegu seihileko honen jarduera asistentziala **egonkor** mantendu dela, iazko epealdi berarekin alderatzen badugu. **Familia-mediku bakoitzak egun bakoitzeko artatutako paziente-kopurua 30 baino pixka bat txikiagoa da eta pediatrian 22koa zehazki,** adierazle honetan etxeko jarduera presentziala zein ez-presentziala ere kontuan izanik.

- ✓ **65 urte baino gehiago izanik ebakuntza bat egiten duten** pertsonen kopurua operatutako pertsona guztien **% 50 gainditzen du.** 85 urte baino gehiagoko adinekoen taldean 7886 pertsona dauden seihileko honetan.

- ✓ Seihileko honetan zehar **480.547 ospitaleko larrialdi artatu dira**. Iazko datuen aldean % 2,56 handitu dira. 318.301 larrialdi arin eta oso arin egon dira. Ospitalean ingresatutako larrialdiak %13,99ko ehunekoan mantentzen da.

- ✓ EAGetan egondako jarduerak 2018ko lehenengo seihilekoan, 315.695 kontsulta mediko eta 173.613 erizaintzako kontsulta artatu dituzten EAG horienak, % 1,29ko hazkundea ekarri du. **Erantzuteko gaitasuna oso**

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
Tfno. 945 01 91 94 – Fax 945 01 93 02 – E-mail: gabinete1-san@ej-gv.es

handia da; izan ere, 100 pazienteetatik 92ri osasun-arazoa konpontzen zaie eta horietatik 8 bakarrik deribatzen dituzte ospitalera

- ✓ **Oinarrizko bizi-euskarriko eta bizi-euskarri aurreratuko anbulantzien mobilizazioa** %6,3 handitu da. **Helikoptero bidez emandako arreta 187 esku-hartzeetan mantendu da, egunean bat baino gehiago batez beste.**

- ✓ **Osakidetzak garatzen dituen Prebentzio eta Transplanteen Programek lidergoa mantentzen dute nazio zein nazioarteko mailan.** Joan den ekainean berri bat martxan jarri zuten: **Umetoki-lepoko Minbizia Goiz Detektatzeko Populazio Programa.**

- ✓ Seihileko honetan, **Aholku Sanitarioa**k 91.310 telefono-dei artatu ditu; horien artean, 54.919 paziente kronikoen jarraipena egin da. 11.580 paziente **telemonitorizatuta daude haien etxeetan. Web bidez** 1.183.026 **zita** eskatu dira eta **Osasun Karpetan** 265.585 sarbide egon da.



Osakidetzako zuzendari nagusiaren hitzetan: "*kalitateko, unibertsala eta jasangarria den osasungintza baten alde lan egiten eta aurrera egiten jarraitzen dugu, bere ahalegin guztiak pertsonen arretan eta zainketan jarriz. Osakidetza etengabe aldatzen da eta etengabe hobetzen da, aldaketa demografikoei egokituz eta denbora luzeagoan bizi den eta osasunarekin geroz eta zorrotzagoa den populazio baten beharrei egokituz. Hori dela eta, baliabide guztiak, baita teknologia berriak ere, pertsonen zerbitzura jartzen ditugu*".

Mugikak adierazi duen bezala, "*Osakidetza Estatuan erreferente bat da. Hori posiblea da Osakidetzako profesionalen konpromisoari eta inplikazioari esker, haiek baitira, ezbairik gabe, gure baliorik preziatuena. Haien lana eskertzen dugu eta pertsonen osasunaren zainketarekin eta baliabideen erabilera arduratsuarekin duten konpromisoa bultzatzen jarraitu nahi dugu*".

LEHEN MAILAKO ARRETA

Seihileko honetan, **familia-mediku bakoitzak,** batez beste, **egunean 29,14 paziente** artatu ditu; horietatik 20,98 presentzialak izan dira, 7,63 ez-presentzialak eta 0,53 etxeko abisuak. **Telefono bidezko kontsultak** ez-presentzialetan sartzen dira eta **kontsulta guztien % 18,74 dira.**

Pediatra bakoitzak, batez beste, **egunean 21,61 paziente ikusi ditu;** horietatik 17,84 presentzialak dira eta 3,77 ez-presentzialak. **Telefono bidezko kontsultak** kontsulta guztien % 13,27 dira.

Familiako medikuntzako eta pediatriako arreta-denborak **paziente bakoitzeko 10 minuturen** inguruan mantentzen jarraitzen dute.



JARDUERA EZ PRESENTZIALA

Osakidetzako ospitaleetan, 2018ko lehenengo seihilekoan **152.857 telefono bidez kontsulta** egin dira, iazko seihileko berean baina % 14,3 gehiago.

Lehen Mailako Arretan, seihileko honetan, **981.849 telefono bidezko kontsulta** egin dira: 871.099 FMn eta 110.750 Pediatrian. Era berean **501.523 administrazio-kontsulta ez presentzial** egin dira: baja-agiria, txostenak, errezetak eta abar. Jarduera ez-presentziala % 25ekoa da FMn eta % 20koa Pediatrian.

Era berean, lehenengo seihileko honetan historia kliniko digitalaren bidez eginiko **66.438 kontsulta ez-presentzial** zenbatzen dira, mediku batek beste mediku batekin, paziente zehatzen inguruko alderdiak tratatzeko, batez ere lehen mailako arretaren eta ospitaleko arretaren esparruetan. Zifra horrek erakusten digu % 33ko hazkundea egon dela iazko datuekin alderatuta.



KONTSULTA EZ PRESENTZIALAK CONSULTAS NO PRESENCIALES		2017	2018	% 2017-2018
Telefono Bidezko Kontsultak Consultas Telefónicas	Familia Medikuntza Medicina de Familia	900.505	871.099	% -3,27
	Pediatria Pediatría	119.220	110.750	% -7,10
	Ospitaleko Arreta Atención Hospitalaria	133.651	152.857	% 14,37
Kontsulta Administratiboak Consultas Administrativas	Familia Medikuntza Medicina de Familia	268.070	460.693	% 71,86
	Pediatria Pediatría	28.570	40.830	% 42,91
Historia Klinikoaren araberako Kontsultarteko Ez Presentzialak Interconsultas No Presenciales por H. Clínica		49.879	66.147	% 32,61
KONTSULTAK GUZTIRA TOTAL CONSULTAS		1.499.895	1.702.376	% 13,50
KONTSULTA EZ PRESENTZIALAK % % CONSULTAS NO PRESENCIALES		% 17,23	% 19,83	

OSPITALEKO ARRETA

Ospitaleko arretako adierazleak
Indicadores At. Hospitalaria
2018ko 1. seihilekoa/1º semestre

Ospitaleko Jarduera Indicadores Hospitalarios	2017	2018	%
Ospitalizazioko Altak Altas de Hospitalización	140.339	139.933	% -0,29
IK Nagusia, Programatua (Intrabitreoak barne) IQ. Cirugía Mayor Programada (incluidas las intravítreas)	76.384	77.785	% 1,83
Konplexutasun bereziko prozedurak (Intrabitreoak gabe) Procedimientos de Alta Complejidad (sin intravítreas)	19.117	19.293	% 0,92
Kanpo Kontsultak Consultas Externas	2.637.525	2.672.295	% 1,32
Proba diagnostikoak (Eko, OTA, Endoskopiak...) Pruebas diagnósticas (Eco, TAC, Endoscopias...)	145.994	161.317	% 10,50
OSATEK (RNM)	70.315	76.905	% 9,37
Ospitaleko Larrialdiak Urgencias Hospitalarias	468.539	480.547	% 2,56
GUZTIRA/TOTAL	3.558.213	3.628.075	% 1,96

Jarduera ospitalizazioan

Alta-kopurua ospitalizazioan egonkor mantentzen da, 140.000 inguru, iazko seihileko beraren aldean.

Batez besteko egonaldia egonkor mantentzen da: 4,46 egun akutuen ospitaleetan eta 14,90 epe ertain eta luzeko ospitaleetan.

Jarduera Kirurgia Handian

Seihileko honetan eginiko **Programatutako Ebakuntza Kirurgikoak (EK) guztira 77.785 izan dira;** hau da, iazko seihileko beraren aldean **% 1,83 gehiago.**

Kirurgia handi programatuan ebakuntza izan duten paziente guztietatik **% 54 alta jaso du egunean bertan** (**Kirurgia Handi Anbulatorioa**).

Urtero, **65 urte baino gehiago izanik operatuta diren pertsonen kopurua handitzen da, izan ere, seihileko honetan ebakuntza guztien % 50a baino gehiago dira.** Seihileko honetan **85 urte baino gehiago izanik ebakuntzaren bat jasan duten pertsonak 7.866** izan dira. Taula bat jaso dugu azken urteotan datu horiek izandako eboluzioa azaltzeko.

Jarduera kirurgikoko adierazle horiek ahalbidetu dute itxaron-zerrendan dauden pazienteen kopurua eta itxaron-denbora mantentzea, nahiz eta faktore demografikoek eta teknologikoek horren alde ez egin; izan ere, interbentzio kirurgiko bat eskatzen duen pertsona-kopurua handitu egin dute.

Kirurgia Handiko Jarduera Kirurgikoaren eboluzioa: Konplexutasun Handiko Prozedurak (PNQ).

Garrantzitsua da aipatzea joan den urteetan teknologia berrietan eta Osakidetzako profesionalek trebakuntzan egindako inbertsioari esker konplexutasun handiko prozesuei heltze diagnostiko eta terapeutikoa egin ahal dugula, aurretik operazio-gelan egin beharreko ebakuntza kirurgikoak zirenak eta horiek gaur egun **operazio-gelatik kanpoko eremu asistentzialetan** egin ahal direla, emaitza bikainekin eta **arrisku eta konplikazio gutxiagoekin**.

Horrek esan nahi du **ospitaleetako prozeduren erregistroan aldaketa bat** egon dela, ebakuntza kirurgikoen kopurua murriztuz eta modu garrantzitsuan handituz operazio-gelatik kanpo eginiko **Konplexutasun Handiko Prozedurak.** Jardueraren azken emaitza hobea da.

Konplexutasun Handiko Prozedura hauek, informazio-sisteman modu mailakatuan sartuko direnak, bereziki esparru asistentzial hauetan egiten dira:

- **Esparru Kardiologikoa:** hemodinamikako eta elektrofisiologiako prozedurak eta abar.
- **Erradiologia Interbentzionistaren eta Baskularraren esparrua:** enbolizazioak, angioplastiak, stent baskularrak jartzea, tronbektomiak, prozedura urologiko endoluminalak, digestio-dilatazioak eta – endoprotesiak eta abar.
- **Minaren esparrua:** nerbio-blokeoak, elektroestimulagailuak eta abar.
- **Esparru Oftalmologikoa:** Injekzio intrabitreoak eta abar.



Ebakuntza izandako 65 urte baino gehiago dituzten pertsonak/Personas intervenidas quirúrgicamente mayores de 65 años

2018ko 1. seihilekoa/1º semestre 2018

	65-74 urte/años	75-84 urte/años	85-94 urte/años	>94 urte/años
Kirurgikoki operatutako pertsona kopurua/Nº de personas intervenidas quirúrgicamente	19.491	18.210	7.583	303
% osotik/sobre total intervenciones	%22,31	% 20,85	% 8,68	% 0,35



Komplexutasun Handiko Prozedurak Procedimientos Alta Complejidad	2.018
Kardiologia/Ambito Cardiológico	2.665
Erradiologia Interbentzionista eta Baskularra/Ambito de Radiología intervencionista y Vascular	2.307
Mina/Ambito del Dolor	2.065
Oftalmologia/Ambito Oftalmológico	15.367
Beste batzuk/Otros	12.256
GUZTIRA/TOTAL	34.660

Kanpo-kontsultak

Guztira **2.445.469** kontsulta egon dira ospitaleetan; **% 2,42 handitu dira.**

Kontsultarteko ez-presentzialen % 33,20ko handitzea nabarmentzen da, batez ere Lehen Mailako Arretako eta Ospitaleko Arretako medikuen artean eginikoak, mailen arteko koordinazio eredu gisa eta ESIaren antolaketa-egituraren integrazioan duten isla gisa. **Kardiologia eta Digestiboko** espezialitateek asko erabiltzen dute kontsulta-modalitate hau, eta atzetik **Dermatologia** dator.



Ospitaleko Kontsultak Consultas Hospitalarias	2017	2018	% 2017-2018
K. Presentzialak C. Presenciales	595.387	593.901	% -0,25
K. Ez Presentzialak C. No Presenciales	49.879	66.147	% 32,61
Lehenengo Kontsultak Primeras Consultas	645.266	660.339	% 2,34
Hurrengoak Sucesivas	1.742.527	1.785.130	% 2,44
Guztira Total	2.387.793	2.445.469	% 2,42

Ospitaleko Larrialdietako Zerbitzua eta EAG

Seihileko honetan zehar **480.547 ospitaleko larrialdi** artatu dira. **Iazko datuen aldean % 2,56 handitu dira. 318.301 larrialdi arin eta oso arin egon dira.** Ospitalean ingresatutako larrialdien ehunekoa %13,99an mantentzen da.

Aurreko urteko epealdi bereko datuei dagokienez, ospitaleko larrialdi zerbitzuetara doazen pazienteen **sailkapena** mantentzen da. **Arinak eta oso arinak kategoriarekin sailkatutako larrialdiak handitzen doaz** eta artatutako larrialdi guztien %66 izan dira aurten. Horietako paziente batzuk, gutxienez, EAGetan artatu izan balira, larrialdietan itxaron-denbora laburragoa izango zen eta baliabide sanitarioak hobeto erabiliko ziren.

Etengabeko Arretako Guneak ospitaleko izaera ez duten zentroak dira, Osakidetzak herritarren eskura jartzen dituena osasun-zentroko arreta-ordutegitik kanpo edo jaiegun batean premiazko arreta eskaintzeko.

EAG hauetara joan gaitezke bizitza arriskuan jartzen ez duten premiazko kasuak artatzeko, osasun-zentroen laneko ordutegitik kanpo. Profesional taldea familiako medikuek, erizaintzako langileek eta administrariek osatzen dute, eta gaixo akutu eta kronikoei ematen diete arreta, osasun-beharren arabera.

Gogoan izan beste inora baino lehen zerbitzu honetara joan behar dugula, bizitza arriskuan jartzen ez duen premiazko osasun–beharra baldin badugu. **Eskura ditugun zerbitzuak ongi erabiliz lortuko dugu pazienteen arreta hobea izatea.**

EAGetan egondako jarduera honakoa izan da 2018ko lehenengo seihilekoan**: 315.695 kontsulta mediko eta 173.613 erizaintzako kontsulta.** Biak batuta % 1,29 hazkundea egon da. **Erantzuteko gaitasuna oso handia da; izan ere, 100 pazienteetatik 92 osasun-arazoa konpontzen zaie eta horietatik 8 bakarrik deribatzen dituzte ospitalera**



ETENGABEKO ARRETAKO GUNEA (EAG) PUNTO ATENCIÓN CONTINUADA (PAC)	2017	2018	%
Medikuntzako Kontsultak Consultas de medicina	301.250	315.695	% 4,80
Erizaintzako Kontsultak Consultas de Enfermería	181.823	173.613	% -4,52
GUZTIRA TOTAL	**483.073**	**489.308**	**% 1,29**
Larrialdietara deribatutakoak Derivación a urgencias	24.513	24.450	% -0,26
Larrialdietara deribatutakoak % Derivacón a urgencias %	% 8,14	% 7,74	

OSPITALIZAZIOAREN ALTERNATIBAK

Osakidetzak "ohiko ospitalizazioaren alternatibak" izenekoak indartzen jarraitzen du, **eraginkortasun-adierazle onak eta,** pazienteen aldetik, **balorazio-indize altuak izaten jarraitzen baitute.**

Eguneko Ospitaleko Medikoaren eta Etxeko Ospitalizazioaren prozedurek aurreko seihilekoaren zifrak mantentzen dituzte: **171.621 eta 6.273** hurrenez hurren.

OSPITALEETAKO ITXARON-ZERRENDAK

Osakidetzako **Itxaron-zerrenda** Kirurgikoan 2018ko lehenengo seihileko honetan, **egonkortasuna ikusten da batez besteko atzerapenean: 48,1 egunekoa da** eta **paziente kopurua iazko epealdi berarena baino zertxobait txikiagoa da (17.853)**, nahiz eta indikazio kirurgikoa handitu den, ebakuntza kirurgiko bat behar duten pertsonen kopurua handitzen duten faktore demografikoen eta teknologikoen ondorioz.

Espezialitateen arabera, paziente gehien dituztenak **Traumatologia, Oftalmologia eta Kirurgia Orokorra** dira. Horiek biztanleen zahartzearekin lotutakoak.

Informazioa hiru lurraldeetan banakatuz gero, hona hemen horien zifrak:

- **Araba:** Paziente kopurua murrizten da (3.102) eta batez besteko atzerapena 2 puntu hobetzen da (50,6 egun).
- **Gipuzkoa:** IZKan paziente-kopurua asko jaitsi da. Batez besteko atzerapena hobetzen da Bidasoko, Debabarreneko eta Urola Garaiko ESIetan.
- **Bizkaia:** IZKetako paziente-kopurua ESIetan orokorrean egonkortu da.

Kanpo Kontsultateko itxaron-zerrendan paziente-kopuru osoa ia 3.000an jaitsi da eta batez besteko atzerapena handitu da: **30,1 egunera.**

Proba Diagnostikoen Itxaron Zerrendan paziente-kopuru osoa ia 3.000an igo da eta **batez besteko itxaron-denbora** handitu da, 14,9 egunekoa izanik.

Proba diagnostikoen zirkuituak hobetzen ari gara, modu mailakatuan eskaeren zirkuitu osoa informatizatuz.

Itxaron-zerrendak hobetzeko plana

Itxaron-zerrendak hobetzeko plana Osasun Sailaren eta Osakidetzaren lehentasunezko helburua da, itxaron-zerrendan ezarritako ratioen azpitik mantentzeko helburu espezifikoarekin. Horretarako, beharrezkoa da **martxan jarritako neurrietan sakondu behar dugu** arreta-modalitate ezberdinetara iristeko denbora-tarteak egonkortzeko eta murrizteko.

2017aren amaieran, Osakidetzak Itxaron-zerrendak hobetzeko Plan hau jarri zuen martxan. Planak, **esparru kirurgikoan, 10 ekintza-lerroa ezartzen ditu**, **guztira 18 proiektuekin eta 39.700.000 euroko inbertsioaerekin,** kirurgia-prozesuaren kudeaketa hobetzera zuzenduta, 2018ko eta 2019ko ekitaldietarako.

2018ko lehen seihilekoan, **plan horrekin lotura duten 8 proiektu hasi dira**:

- **Indikazio kirurgikoa homegeneizatzea** kirurgia hauetarako: **Katarata, Barizeak, Abdomeneko paretaren herniak, Aldakako eta Belauneko kirurgia protesikoa.**
- **Kirurgia plangintzan eta programazioan laguntzeko tresna informatikoen** erosketa eta hedapena.
- **Praktika asistentziala egokitzeko batzordeen** osaera **(MAPAC**).
- ESIen arteko elkarlana **unitate espezializatuetan konplexutasun kirurgiko handiko prozedurak zentralizatzea.**
- **Debagoiena ESIaren eta Araba ESIaren arteko elkarlana** konplexutasun txikiko eta ertaineko **Traumatologiako** zerrenda kirurgikoko pazienteen itxaron-denborak murrizteko.
- **Operazio-gela berriak** martxan jartzea (Urdulizko Ospitalea, Basurtuko Ospitalea) jarduera kirurgikoa handitzeko.
- **Kanpo-kontsulten eta Proba Osagarrien** esparruan eskari gehien dituzten espezialitateetan, hala nola **Traumatologian eta Errehabilitazioan**, jarduera-planak egiten ari dira.

Ekainaren 30eko datarekin, adierazitako aurrekontuko **22.600.000 euro** zuzendu direla balioztatu da, egun arte gauzatutako hobekuntza-egintzetarako. Ondokoak dira aipagarrienak: aipatu azpiegituren zuzkidurari atxikitakoak, plangintza eta programazio kirurgikoa hobetzeko erreminten erosketa, ESIen arteko lankidetza berantzeak murrizteko eta autokonzertazioko jarduerak.

Kirurgiako Itxaron-zerrenda
Lista de Espera Quirúrgica
2018ko 1. seihilekoa/1º semestre

Eguneko Ospitaleko Kirurgiako Prozedurak Procedimientos H. Día Cirugía	Paziente kopurua Nº pacientes		Batez best. atzerapena Demora media	
	2017	2018	2017	2018
Araba ESIa	3.218	3.102	52,6	50,6
Donostialdea ESIa	3.765	3.587	44,5	48,9
Goierri-Urola Garaiko ESIa	762	726	47,4	52,3
Bidasoko ESIa	462	518	41,2	40,7
Debabarreneko ESIa	500	477	50,1	43,8
Alto Deba ESIa	418	259	43,6	27,4
Ezkerr-Enkar.-Gurutz. ESIa	3.240	3.276	42,7	43,1
Bilbao-Basurtu ESIa	2.945	3.128	52,5	54,5
Barrualde-Galdakao ESIa	2.321	1.766	49,7	47,8
Barakaldo-Sestaoko ESIa	786	784	49,7	49,0
GUZTIRA/TOTAL	18.417	17.853	47,9	48,1

Kontsultetako Itxaron-zerrenda
Lista de Espera Consultas
2018ko 1. seihilekoa/1º semestre

Kontsultetako Itxaron-zerrenda Lista de Espera Consultas	Paziente kopurua Nº pacientes		Batez best. itxaropena Demora media en días	
	2017	2018	2017	2018
Araba ESIa	14.475	14.747	27,5	26,3
Donostialdea ESIa	15.878	13.596	21,6	19,8
Goierri-Urola Garaiko ESIa	3.108	3.333	29,1	28,6
Bidasoko ESIa	2.657	2.170	30,1	17,5
Debabarreneko ESIa	2.593	3.112	12,8	17
Alto Deba ESIa	1.275	1.275	14,6	18,5
Ezker.-Enkar.-Gurutz. ESIa	15.905	14.836	30,6	36,3
Bilbao-Basurtu ESIa	18.221	16.550	33,4	51
Barrualde-Galdakao ESIa	10.842	12.053	22,4	18,7
Barakaldo-Sestaoko ESIa	4.313	4.214	24	28,4
Uribe ESIa	1.286	1.932	24,9	22,8
GUZTIRA/TOTAL	90.553	87.818	26,9	30,1

Probetarako Itxaron-zerrenda
Lista de Espera Pruebas
2018ko 1. seihilekoa/1º semestre

Probetarako Itxaron-zerrenda Lista de Espera Pruebas	Paziente kopurua Nº pacientes		Batez besteko itxaron-denbora Espera media en días	
	2017	2018	2017	2018
Araba ESIa	1.021	1.148	14,6	21,0
Donostialdea ESIa	2.067	2.237	9,7	13,1
Goierri-Urola Garaiko ESIa	441	540	12,0	6,9
Bidasoko ESIa	349	316	9,8	6,8
Debabarreneko ESIa	475	278	7,8	11,5
Debagoiena ESIa	465	388	11,1	11,8
Ezker.-Enkar.-Gurutz. ESIa	3.263	2.618	17,7	17,2
Bilbao-Basurtu ESIa	2.356	5.319	11,7	11,7
Barrualde-Galdakao ESIa	4.968	5.181	16,9	21,2
Barakaldo-Sestaoko ESIa	74	114	2,1	0,9
Uribe ESIa	413	738	17,2	9,5
GUZTIRA/TOTAL	15.892	18.877	13,8	14,9

EMERGENTZIETAKO ZERBITZUAREN JARDUERA

Oinarrizko bizi-euskarriko eta bizi-euskarri aurreratuko anbulantzien mobilizazioa **% 6,3 handitu da**. **Helikoptero** bidez emandako arreta **187 esku-hartzeetan mantendu da**, **egunean bat baino gehiago batez beste.**

Emergentziak
Emergencias
2018ko 1. seihilekoa/1º semestre

Emergentziak/Emergencias	2017	2018	%
Hartutako deiak Llamadas recibidas	200.115	209.764	% 4,82
BEA + OBE anbulantziak (medikalizatua edo erizaintza + oinarrizkoa) SVA + SVB ambulancias (medicalizada o enfermería + básico)	88.356	94.039	% 6,43
Helikoptero medikalizatua Helicóptero medicalizado	189	187	% -1,06
Etxez etxe mediku eta erizain mugi. kop. / Nº movil. Médicos y Enfermería a domicilio	34.166	35.252	% 3,18

Osakidetza

OSAKIDETZAKO PREBENTZIO PROGRAMAK

Osakidetzak eginiko **prebentzio programek** ibilbide luzea dute eta horrek gero eta konfiantza gehiago ematen die herritarrei; izan ere, parte-hartze tasak altuak dira, eta emaitzak, egokiak.

Parte-hartzearen ehunekoak oso altuak dira, Espainiako eta Europako batez bestekoen aldean.

Bereziki nabarmendu behar ditugu:

- **Jaioberrien baheketa,** jaioberrien orpoaren proba izenarekin ezagutzen dena; jaioberrien %100i egiten zaie.

- **Down Sindromearen detekzioa** haurdunetan; **%90i** egiten zaie.

- **Kolon eta ondesteko minbizia goiz detektatzeko programa.** % 72ko parte-hartzearekin. Europa mailako onenen artean kokatuta dagoena. Lortutako emaitzei dagokienez, 2017an, **2.228 arrisku handiko adenoma eta 237 minbizi inbaditzaile** detektatu ziren.

- **Bularreko minbizia goiz detektatzeko programa, % 75,4ko** parte-hartzearekin. Europa mailako onenen artean ere kokatuta dagoena. 2017an, emaitzek **617 bularreko minbizi detektatzeko** aukera eman dute.

- **Haurren hortzak zaintzeko programa (PADI),** 2018ko lehenengo seihileko honetan % **35,98ko** estaldura izan du eta horrek aurreikusten

du urteko estaldura % 70ekoa izango dela. Espainiako batez bestekoa % 48,96 da **Europako herrialde onenen mailan dago.** Euskadik 1988an abiarazi zuen programa hau eta orduan euskal haurren % 82k txantxarrak zituzten; egun, datu hori % 26koa da. **Hots, 4 euskal umetatik 3k ez du txantxarrik.**

- **Umetoki-lepoko Minbizia Goiz Detektatzeko Populazio Programa.** Xede-populazioa 25 eta 65 urte arteko emakumeak dira. Joan den ekainean, Osakidetzan Umetoki-lepoko Minbiziaren Baheketa Programa martxan jarri du Debabarreneko ESIan, 2018an eta 2019an EAE osora hedatzen joateko ideiarekin.

TRANSPLANTEEN PROGRAMA

Transplanteen Programari dagokionez, nabarmendu behar da **organoen emate-tasa** (giltzurruna, gibela, bihotza, birikak…) Euskadin **milioi bat biztanleko 55 emaileena dela** (p.m.p. tasa) seihileko honetan. Urteko aurreikuspena batezbesteko espainola baino handiagoa izango dela da, munduko handienetariko bat.

Giltzurruneko Transplantea seihileko honetan Euskadin **58ko p.m.p. tasan** dago, eta urteko aurreikuspena Espainiakoaren gainetik (70,2) eta Europakoaren gainetik gelditzea da.

Hezur-muineko emaileak Euskadin azken urteotako zifra altuetan mantentzen dira: 401 p.m.p. tasa.

Azken urteetan martxan jarri den **asistolian organoak emateko** programari dagozkion **emaileak %29,2** dira, organo-emaile guztietatik.

OSAREAN: OSAKIDETZA EZ PRESENTZIALA

Herritarren irisgarritasuna hobetzen duten komunikazioko eta arreta sanitarioko kanal berriek aurrera egiten jarraitzen dute; horien artean, **Osasun Aholkuaren, Web Zitaren, Pazienteen Telemonitorizazioko Programen eta Osasun Karpetaren** jarduera nabarmendu behar ditugu.

Osakidetzaren Osasun Aholkua

Osasun Aholkua urteko 365 egunetako 24 ordutan funtzionatzen duen **erizain-talde** bat da, programetan dauden pazienteen **arretaren jarraitutasuna** bermatzen duena. Horiek modu programatuan artatzen dituzte. Gainera, bere ekimenez deitzen duten pertsonen zalantzak eta osasun-arazoak argitzen dituzte.

Osasun Aholkua, lehenengo seihileko honetan, % 4,5 handitu da jasotako dei-kopuruari dagokionez (**91.310**), eta **paziente kronikoen** jarraipena aipatzeko modukoa da, **% 32,1eko igoerarekin**. Aldi berean, Osasun Aholkuko erizainek **ebatzitako deien** tasa altua mantendu egin da; datua: dei guztien **% 80**.

AHOLKU SANITARIOA: ARRETA-PROGRAMAK CONSEJO SANITARIO: PROGRAMAS DE ATENCIÓN	2018
Aringarrietako Pazienteen jarraipena egitea etxean/Seguimiento de Pacientes Paliativos en domicilio	38.827
Kirurgia Handi Anbulatorioko pazienteen jarraipena egitea/Seguimiento de los pacientes de Cirugía Mayor Ambulatoria	510
Tabakoarekiko Mendekotasuna Gainditzea / Apoyo a la Deshabituación Tabáquica	160
Praktika Aurreratuko Erizanei laguntzea / Apoyo a las Enfermeras de Práctica Avanzada	1727
Etxeko Ospitalizazioari laguntzea/Apoyo a la Hospitalización a Domicilio	396

Pazienteei etxean telemonitorizazioa egiteko programak

Pazienteen telemonitorizazioa ez da berez espezialitate mediko bat, baizik eta ezaugarri jakin batzuk dituzten pazienteei osasun-arreta emateko era berria, aurretik zeuden arreta motei gehitu zaiena.

Gaur egun, 2018ko lehen seihilekoaren amaieran, **Osakidetzan 11.580 paziente daude Telemonitorizazioko Programen barruan;** hau da, iazko epealdi beraren aldean **% 18,92 gehiago.**

Pazienteei jarraipena egiteko modu berria da azken hori, gaixotasun kronikoa dutenak behar bezala kontrolatuta eduki ahal izateko bere etxean. Modu horretan, zainketen jarraitutasunaren helburua sendotu egiten da.

Osakidetzako Web Zita

Osakidetzako Web zitak gora egiten jarraitzen du etengabean eta seihileko honetan 1.183.026 **hitzordu digital** eskatu dira**; hau da, zita guztien % 13,21.**

Web zita zerbitzura ordenagailu batetik zein beste edozein gailu mugikorretik (Tableta edo Telefonoa) sar daiteke, **Osakidetzaren Atari Mugikorra app** berritik zuzenean. Lehen mailako arretako kontsulten aurretiko zita eska daiteke zerbitzu horretatik: familia-medikua, pediatra, erizaina edo emagina.

Osasun-karpeta

Lehengo seihileko honetan **Osasun Karpetarako sarbide-kopurua 265.585**koa izan da; hau da, **% 42,4 igo da** iazko epealdi beraren aldean.

Osakidetzaren Osasun Karpeta **online plataforma da, Osakidetzak bere paziente eta/edo erabiltzaileekin harremanetan** egoteko erabiltzen duen tresna. 24 orduz dago eskuragarri, munduko edozein tokitan, ordenagailuaren, Tabletaren zein Smartphonaren bidez.

Orain dela gutxi, hainbat funtzionalitate gehitu dizkiogu plataformari, eta orain aukera daukate g**urasoek 16 urtetik beherako seme-alaben osasun-arloko informazioa eskuratzeko bertatik, eta gurasoek ez ezik, baita bere kargura heldu bat edo tutoretzapean norbait daukatenek ere**. 2017 urtean abian jarri zen **Jaioberrien Osasun Karpetara sartzeko programa.**

Vitoria-Gasteizen, 2018ko uztailaren 27an